

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Goicoechea kontseilaria Ekintzailtza Planeko finantzaketa-mahaiaren eraketaren buru izan da

Helburua Nafarroan sortu eta finkatutako enpresen kopurua handitzea da enplegua sortzeko eta garapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko

Lunes, 23 de abril de 2012

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoechea Ekintzailtza Planeko finantzaketa-mahaiaren eraketaren buru izan da gaur goizean. Hura Nafarroako Gobernuaren Enpresa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak sustatu eta kudeatzen du [Moderna Plan](#)aren estrategiaren zati moduan, urtetik urtera enpresa berrien kopuruak % 25 igotzeko xedearekin; hala, orain urtean osatzen diren mila enpresetatik 1.250era pasako zen 2020. urtean eta 1.0 2030ean.



Goicoechea kontseilaria Nafarroako Gobernuko Ekintzailtza Planeko finantzaketa-mahaiaren eraketaren buru izan da.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariak Plan horren inguruan esan du, "Nafarroak estrategia bakarra izango duela, eragile guztien artean koordinatuta eta ekintzailtza sustatzeko erabat integrala izango dena. Tresna horrekin, herritarren gaitasuna garatu nahi dugu, kalitatezko enplegua sortu eta ongizatea sortu gizarte guztiarentzat".

Lau lan-eremu

Ekintzailtza Plana lau gai-esparrutan antolatzen da:

- *Talentua eta gizartea*, herritarrentzako ekintzak zehazteko helburuarekin ekintzailtza aldeko giroa sortzeko eta begirune soziala lortzeko ekintzaileen irudiarekiko.
- *Ideiak sustatzea, jarduera ekintzailea sortu eta finkatzea*, beren proiektuaren bizitzako hiru faseetan ekintzaileentzako ekintzak zehazteko: negozioaren ideia identifikatzea, enpresa sortzea eta proiektua finkatzea.
- *Sareak eta itunak*, ekintzaileen, enpresen eta ekintzailtzari lotutako eragileen artean lankidetzak sustatzeko eta ezagutzak trukatzeko.
- *Finantzaketa eta administrazioa*, finantzaketa errazago izateko eta enpresen sorreran administrazioa sinplifikatzeko.

Ekintzailtza Planaren Diseinua

Ekintzailtza Planaren diseinua laneko zazpi mahai zehatzen proposamenetan oinarrituta dago (talentua eta gizartea; sustapena; sorkuntza; finkapena; sareak eta itunak; finantzaketa; eta administrazioa), eta bertan parte hartzeko gonbita luzatu zaie: enpresa-munduko ordezkariak (CEN, ANEL, AJE, Sonagar, Zabala, Merkataritza Ganbera, Arpa, Job Accomodatio eta NASF, besteak beste), unibertsitateak (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea eta UHUN), finantza-erakundeei (Caja Laboral, Can, Nafarroako Caja Rural, La Caixa eta Banco Santander) eta Nafarroako Administrazioari (Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua eta Ekonomia eta Ogasun Departamentua; Nafarroako Enplegu Zerbitzua; Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioa, eta Sodena, Cein eta Moderna titularitate publikoko enpresa eta fundazioak).

Zazpi mahai horien proposamenak jasota, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak Ekintzailtza Planaren zirriborro bat egingo du, eta hura mahaietako parte-hartzaileen esku utziko da Nafarroako Gobernuak behin betikoz onartu aurretik.